

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Harivenasak Arakilen 50 enplegu berri izanen dituen lantegia sortzeko hitzarmena sinatu dute

Nekazaritzako elikadura-industriaren sektoreko enpresa hau Sakana aldean finkatuko da 113.000 metro koadroko lursaila erosi ondoren

Astelehena, 2019.eko martxoak 18

Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Manu Ayerdi buru, lankidetzaren hitzarmena sinatu dute gaur goizean Nasuvinsa sozietate publikoko zuzendari kudeatzaile Jose M^a Aierdik eta Harivenasaren ordezkari Alberto Loizatek eta Javier Berazalucek, enpresa honek Arakil aranean Etxarren herriko 113.000 metro koadroko azalera duen lursaila erosi eta bertan ekoizpen-lantegia finka dezan. Nekazaritzako lehengaiak prozesatzeko lantegi berri honetan, Harivenasak berrogeita hamar lanpostu inguru sortzea aurreikusi du.



Ezkerretik eskuinera: José M^a Aierdi, Nasuvinsako zuzendari kudeatzailea; Manu Ayerdi, Garapen Ekonomikoko lehendakariordea; Alberto Loizate eta Javier Berazaluce, Harivenasaren ordezkariak.

Harivenasa Rural Kutxa Taldeari atxikitako lehen sektoreko enpresa da, oloaren eta bestelako zerealen produktu deribatuak sortu eta transformatzea xede duena, prozesu jatorritik merkaturatzeraino kontrolatuz. Egun, zuzeneko zein zeharkako 50 lanpostu ditu Noain eta Getze herrien artean kokatua duen lantegian. Arakilgo proiektu berriari esker, konpainia nafarrak beste 50 enplegu sortzea aurreikusi du. Guztira, zuzeneko nahiz zeharkako 100 lanpostu izanen ditu.

Arakilgo Udalaren lankidetzaren

Industria arloko sustapen lanetan, Nasuvinsak laguntza eman dio Harivenasa enpresari, instalazioak handitzeko lursaila bila zezan. Azkenik, sozietate publikoak, Arakilgo Udalarekiko lankidetzaren estuan, lantegi berria herri honetan kokatzea erraztu du, Sakana aldean lanpostu berriak sortzeko aukerarekin.

Nasuvinsako industria arloak aipaturiko lursaila erosi zuen abenduan Arakilen, krisi garaian horren langabezia handia jasan zuen Sakana eskualdean enpresa berriak ezartzeko dagoen eskari gero eta handiagoari aurre egin ahal izateko.

Inbertsioaren lehendabiziko 1,5 milioiak

Nasuvinsak 1,5 milioi euroko guztizko balioa duen lehendabiziko

inbertsioa egin du, Etxarren kontzejuan (Arakil) finkaturiko lursaila erosi eta hasierako berrurbanizazio lanak bideratzeko. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuak industria sustatzeko sozietate publikoaren bitartez Sakana aldean gauzatu duen bigarren esku-hartzea, Irurtzongo industrialdea leheneratzeko egin zuen jarduketaren ondoren. Kasu honetan, foru Exekutiboak Inasaren instalazioak erosi zituen 2016an, lantegia itxi ondoren, eta eremua onera ekarri zuen industrialde berri bat sustatzeko.

Esku-hartze hartan, Nafarroako Gobernuak 7 milioi euro inbertitu zituen zoru industrial berrurbanizatu eta berreskuratzeko. Irurtzun aldean, zazpi enpresa finkatuta daude egun, eta guztien artean, 240 lanpostu mantendu eta 140 milioi fakturazten dituzte urtean. Kopuru horiei, Harivenasak Arakilen sortu behar dituen berrogeita hamar bat lanpostuak gehitu behar zaizkio.